



**BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLAREN
MEMORIA**

2023-2024 IKASTURTEA



BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	2
2. ORGANIGRAMA.....	3
3. EGUTEGIA	4
4. HELBURUEN EBALUAZIOA (BETETZE MAILA)	5
5. IKASLEEN EMAITZA AKADEMIKOAK	5
6. ANIZTASUNAREN TRATAERA	6
6.1. Aniztasun funtzionala duten ikasleak	6
7. FORMAZIO PLANA	6
8. ESKOLAK ERABILTZAILEAK INFORMATZEKO PLANA	6
9. ESKOLAKO ORDEZKARITZA ORGANOEN BILKURAK.....	7
9.1. Bizkargi Zuzendaritza Batzordea.....	7
9.2. Batzar Nagusia	7
10. 2023-24 IKASTURTEAN BURUTUTAKO EKINTZAK eta EMANALDIAK	8
11. 2024-25 IKASTURTERAKO AURREIKUSPENAK	21
11.1. 2024-25 ikasturteko egutegia	21
11.2. 2024-25 ikasturteko ekintzen egutegia	22



BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

1. SARRERA

2023-24 ikasturteko memoria honetan, Eskolaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko alderdi garrantzitsuenak jasotzen dira, baita pedagogia-arlokoak ere.

Era berean, esan behar da ikasturteko lehen hiruhilekoan ekitaldi berezi bat antolatu zela Santa Zezilia egunerako, Bizkargi Musika eta Dantza Eskolaren sorreraren 40. urteurreneko ekitaldiekin amaitzeko.

Ekitaldia benetan berezia izan zen, Eskolako kideekin batera herriko hainbat musika eta dantza taldek (Iraurgi Abesbatza, Sahatsa Dantza Taldea, Txalkor Txistulari Taldea eta Azkoitiko Musika Banda Eskola) parte hartu baitzuten.

Bestalde, dokumentu honen 9. atalean, ikasturtean zehar Eskolako Gobernu Organoek (Batzar Nagusiek eta Zuzendaritza Batzordeek) Eskolaren funtzionamenduan inplikaturako alderdien jarraipena egiteko eta, hala badagokio, Eskolaren funtzionamendu egokia bermatzeko erabakiak hartzeko egin dituzten ohiko bilkuretan landu diren alderdirik garrantzitsuenak jasotzen dira.

Bilkuretan jorratutako gai horiek eta hartutako erabakiak bilkurei dagozkien aktetan jasota daude.



BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

2. ORGANIGRAMA

ESKOLAKO ZUZENDARITZA TALDEA		
ZUZENDARIA MARIJOSE ARREGI		IDAZKARIA MAJE LARRAÑAGA
BIZKARGI ZUZENDARITZA BATZORDEA		
ELKARTEKIDEEN ORDEZKARIAK	ESKOLAREN ORDEZKARIAK	UDAL ORDEZKARIA
Lehendakaria AMAIA ILLARRAMENDI Lehendakariordea MIREN IRIONDO Diruzaina AINHOA ARRIETA Idazkaria AITOR MACHO	Eskolako zuzendaria MARIJOSE ARREGI Irakasleen ordezkaria MAJE LARRAÑAGA	Kultura zinegotzia SONIA VAZQUEZ
IRAKASLEEN KLAUSTROA		
Musika Hezkuntza Goiztiarra Txikien eta Helduen Musika Tailerrak ❖ BELEN URIA (LAURA COBO) ❖ EDURNE ALBERDI ❖ MAJE LARRAÑAGA ❖ ITSASNE FERNANDEZ	Musika Hizkuntza ❖ BELEN URIA (LAURA COBO) ❖ EDURNE ALBERDI ❖ MAJE LARRAÑAGA ❖ ITSASNE FERNANDEZ	
Gitarra klasikoa eta elektrikoa - Baxua ❖ YERKO ORTIZ	Tronboia - Tuba - Bonbardinoa - Tronpeta ❖ JONATAN QUIÑONES	
Pianoa ❖ BELEN URIA (LAURA COBO) ❖ EDURNE ALBERDI ❖ MAJE LARRAÑAGA	Abesbatza ❖ MAJE LARRAÑAGA	
Euskal Dantza ❖ AITOR SORAZU	Perkusioa - Bateria - Gazte banda ❖ GORKA ERREZIL	
Akordeoa ❖ MARIJOSE ARREGI	Zeharkako flauta ❖ ANE ALBERDI	
Saxofoia ❖ SILVIA MERINO	Klarinetea ❖ ITSASNE FERNANDEZ	
Biolina ❖ JON MAKUSO	Txistua ❖ ALAIN SORAZU	
Trikitixa ❖ XABIER ALBERDI	Panderoa ❖ AINTZANE AGIRREBEÑA	
Gazteen eta Udal Musika Banda ❖ CARLOS MUÑOZ		



BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

3. EGUTEGIA



BIZKARGI Musika eta Dantza Eskola

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

2023-24 IKASTURTEKO EGUTEGIA

IRAILA							URRIA							AZAROA						
AL	AS	AZ	OS	OR	LR	IG	AL	AS	AZ	OS	OR	LR	IG	AL	AS	AZ	OS	OR	LR	IG
				1	2	3							1			1	2	3	4	5
4	5	6	7	8	9	10	2	3	4	5	6	7	8	6	7	8	9	10	11	12
11	12	13	14	15	16	17	9	10	11	12	13	14	15	13	14	15	16	17	18	19
18	19	20	21	22	23	24	16	17	18	19	20	21	22	20	21	22	23	24	25	26
25	26	27	28	29	30		23	24	25	26	27	28	29	27	28	29	30			
ABENDUA							URTARRILA							OTSAILA						
AL	AS	AZ	OS	OR	LR	IG	AL	AS	AZ	OS	OR	LR	IG	AL	AS	AZ	OS	OR	LR	IG
				1	2	3	1	2	3	4	5	6	7				1	2	3	4
4	5	6	7	8	9	10	8	9	10	11	12	13	14	5	6	7	8	9	10	11
11	12	13	14	15	16	17	15	16	17	18	19	20	21	12	13	14	15	16	17	18
18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28	19	20	21	22	23	24	25
25	26	27	28	29	30	31	29	30	31					26	27	28	29			
MARTXOA							APIRILA							MAIATZA						
AL	AS	AZ	OS	OR	LR	IG	AL	AS	AZ	OS	OR	LR	IG	AL	AS	AZ	OS	OR	LR	IG
				1	2	3	1	2	3	4	5	6	7			1	2	3	4	5
4	5	6	7	8	9	10	8	9	10	11	12	13	14	6	7	8	9	10	11	12
11	12	13	14	15	16	17	15	16	17	18	19	20	21	13	14	15	16	17	18	19
18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28	20	21	22	23	24	25	26
25	26	27	28	29	30	31	29	30						27	28	29	30	31		
EKAINA																				
AL	AS	AZ	OS	OR	LR	IG														
					1	2														
3	4	5	6	7	8	9														
10	11	12	13	14	15	16														
17	18	19	20	21	22	23														
24	25	26	27	28	29	30														

Jai egunak eta Oporrak: Gabonak, Aste Santua
IKASTURTE HASIERA eguna eta AMAIERA eguna
Sta. Zezilia / Amaierako JAIALDIA: (Ez dago klaserik)
Zubia



BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

4. HELBURUEN EBALUAZIOA (BETETZE MAILA)

2023-24 Ikasturterako aurreikusitako ondorengo helburu guztiak bete dira.

1. 2023-24 Ikasturtean “Aula Virtual” metodologia 2.5. mailan ezartzea.
2. Bigarren hiruhilekoan, Eskolan ematen diren instrumentuak aurkezteko saioak antolatzen jarraitzea, haien aukerak eta berezitasunak ezagutarazteko.
3. Musika Joera berriak bultzatzen jarraitzea.
4. Zaharkitutako ordenagailuak aldatzen edo eguneratzen joatea.
5. Ikasleen kuoten zenbatekoa eguneratzen jarraitzea.
6. Ikasleekin eta gurasoekin egiten diren bilerak mantentzea, ikaskuntza-prozesuari buruzko informazioa emateko eta, gainera, informazioa, iritziak, iradokizunak eta abar trukatzeko.
7. Eskolako Web gunea eguneratuta mantentzea, Eskolako erabiltzaileei unean uneko informazioa helarazteko.
8. Eskolako domeinua **.com**-etik **.eus**-era aldatzea.
9. Gizarte Zerbitzuek egindako eskaerari aurre egitea. BIZIPOZA elkarteko kideei Musikoterapia saioak eskaintzea urtean zehar.
10. San Jose Egoitzako egoiliarren musikoterapia-saioen maiztasuna handitzea, hilean bi saiotik laura.

5. IKASLEEN EMAITZA AKADEMIKOAK

Hurrengo taulan jasotzen diren ikasleen emaitzak aztertu ondoren, emaitzak onak izan direla esan daiteke. Mailaz igotzen diren ikasleen ehunekorik txikiena % 70koa da.

MAILA	IKASLEAK GUZTIRA	PROMOZIONATUAK
1. Maila	109	%100
2. Maila:	230	
Hastapena: M. Hizkuntza + Instrumentua	29	%90
MH 2.1. - 2.2.	53	%82
MH 2.3. - 2.4.	72	%94
MH 2.5. - 2.6.	46	%70
Dantza	30	%96
3. Maila:	136	
Instrumentua + Taldea	87	%94
Dantza	49	%90
OINARRIZKO DIPLOMA	13	%100



BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

6. ANIZTASUNAREN TRATAERA

6.1. ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN IKASLEAK

Ikasturte honetan aniztasun funtzionala duten 5 ikasle izan ditugu ikasgai ezberdinetan matrikulatuta. Ikasle bakoitzaren ezaugarriak eskatzen dituen mota ezberdinetako egokitzapenak egin dira irakaskuntza ikasle bakoitzari ahalik eta gehien egokitzeko. Neurri horiek aniztasunari erantzuteko eta premia zehatz eta indibidualak behar dituzten ikasleei erantzuteko pentsatuta daude.

7. FORMAZIO PLANA

Irakasleen etengabeko formazioa bultzatzen jarraitzeko, 2023-24 ikasturtean honako ikastaro hauek egin dira:

IKASTAROA	NOIZ	ORDUAK
Genero-berdintasunaren kudeaketa enpresa-eremuan	apirila-maiatza	30
Musika eta Dantzako irakaskuntza Jardunaldia. UEMyD-EHME-MUSIKENE	JARDUNALDIA Musikenen- Donostian martxoak 15-16	12

8. ESKOLAK ERABILTZAILAK INFORMATZEKO PLANA

Eskolak bitarteko hauek erabili ditu ikasturtean zehar gurasoekin/ikasleekin harremanetan jartzeko eta unean uneko informazioa helarazteko eta jasotzeko.

WEB GUNEA

Bertan, Eskolari eta bere antolamenduari zein funtzionamenduari buruzko informazio orokorra (Hezkuntza Eskaintza, Araudia, inprimakiak eta Ikasturteko Plana: egutegia, matrikulazioari buruzko informazioa, talde ordutegiak e.a.) egoteaz gain, unean uneko berriak ere argitaratzen dira.

INIKA

Eskolari buruzko unean uneko hainbat informazio eta jakinarazpen helarazteko maiz erabili da.

INFORMEAK

Ikasturteko hiru ebaluaziotako informeak **INIKA** bidez bidali dira.

INSTRUMENTUEN AURKEZPEN SAIOAK

Ikasturteko bigarren hiruhilekoan, otsailean eta martxoan, antolatu ziren Eskolan irakasten diren **instrumentuen aurkezpen saioak**.



BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

Ate irekiak: martxoan zehar, metalezko haize-instrumentuak: **TRONPA, TRONPETA, TRONBOIA, BONBARDINOA edo TUBA** Jarduera hauen helburua Musika Bandak osatzeko hain beharrezkoak diren Haize Metaleko Instrumentuekiko zaletasuna sustatzea da.

IKASLEEKIN/GURASOekin BILERAK

- Irakasleen eta ikasleen/gurasoen arteko bilerak instrumentu klaseen ordutegiak adosteko ekainean egin dira.
- Irakasleek gurasoekin seme-alabak mailaz/zikloz igaro aurretik bilerak egin dira, maila/ziklo berri horri buruzko informazioa emateko.
- Ikasturtearen amaieran bilera bat egin zen Musika Hizkuntzaren hastapeneko ikasleen gurasoekin, hurrengo ikasturtean ezarriko zen “*Aula Virtual de Música*” metodologia berria azaltzeko.

IRAGARKI TAULA

Bertan, besteak beste, matrikulazio epeak eta talde ordutegiak argitaratu dira.

9. ESKOLAKO ORDEZKARITZA ORGANOEN BILKURAK

9.1. BIZKARGI ZUZENDARITZA BATZORDEA

Batzordea hiru hilean behin bildu da, Eskolaren funtzionamenduari eta jarduerari buruzko hainbat gai tratatzeko eta erabakiak hartzeko. Batzordeak, besteak beste, honako erabaki hauek hartu ditu:

- 2022-23 Ikasturteko Memoria aztertzea Batzar Nagusiak bere urteko Ohiko Bilkuran onartzeko.
- 2023-24 ikasturteko Urteko Plana onartzeko.
- Eskolaren Antolakuntza eta Jarduera Araudia (AJA) eguneratzea.
- Ikasleen kuotei eta irakasleen soldatei Kontsumo Prezioen Igoera (KPI) aplikatzea.
- 2023-24 ikasturterako egutegia onartzeko.

9.2. BATZAR NAGUSIA

Batzar Nagusiak **abenduaren 12an** egin zuen bere urteko **ohiko bilkura** **2022-23** urteko **Memoria onartzeko**.



BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

10. 2023-24 IKASTURTEAN BURUTUTAKO EKINTZAK eta EMANALDIAK

❖ IRAILAK 3 – 4 : DANTZA SUELTOKO TXAPELKETAK DONOSTIAN eta ZARAUTZEN

Dantza Suelto Txapelketen saioak aurrera doaz, aurreko asteburuan Donostian ospatu zen txapelketan 10 bikote izan ziren lehian eta Bizkargi Musika eta Dantza eskolako bi bikoteak bertan aritu ziren. Laura Bastida eta Ekain Uzkudun 4. sailkatu ziren eta Nora Aizpuru eta Iker Zabala 8.ak izan ziren.

Astelehenean berriz Zarauzko Euskal astearren barruan ospatu zen txapelketa Zاراутzen. Bertan 11 bikote izan ziren lehian eta Laura Bastida eta Ekain Uzkudun 3.ak izan ziren sailkapenean. Nora Aizpuru eta Iker Zabala berriz 7. postuan sailkatu ziren.



❖ IRAILAK 9: 1. SARIA LAURA BASTIDA ETA EKAIN UZKUDUN BIKOTEAK ZARAUTZEN

Larunbatean ospatu zen Bergaran Moises Azpiauren oroimenez antolatzen den Helduen Mailako 38. Bikoteen Dantza Suelto txapelketa. Bertan 8 bikote izan ziren lehian eta lehen postua herriko bikotearentzat izan zen. 2. eta 3 postuan berriz **Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako bikoteak**:

Laura Bastida eta Ekain Uzkudun
Nora Aizpuru eta Iker Zabala.





BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

❖ AZAROAK 18: TXISTULARI GAZTEEN TOPAKETA LEGAZPIN

DANBOLIGENAK: 2019an ekin zitzaion proiektu honi gazteek txistu-danbolinak joaz festa egiteko aitzakiarekin. Aurreneko topaketa Azkoitian egin zen, 2018ko urtarrilean, hurrengo Bilbon, urte bereko urrian, eta pandemiaren ostean, Lesakan ekin zitzaien berriz ere topaketa presentzialei 2022ko irailean. 2023an, Gipuzkoan egin da topaketa, Legazpin hain zuzen, azaroaren 18an, eta bertan izan dira Musika Eskolako txistulariak.



❖ URRIAK 21- 3. SARIA LAURA BASTIDA-EKAIN UZKUDUN / JANTZI ONENAREN SARIA: NORA AIZPURU-IKER ZABALA

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako bi bikote sarituta izan ziren atzo, Seguran jokaturako 47. Euskal Herriko Dantza Txapelketan. Hamahiru bikote lehiatu ziren guztira eta hirugarren sailkatu zen Laura Bastida eta Ekain Uzkudun bikotea. Horrez gain, dantza jantzi onenaren saria ere eskolako bikoteak jaso zuen: Nora Aizpuru eta Iker Zabala.



❖ URRIAK 20: TRIKIGIRO AZPEITIN

Urriaren 20an, Azpeitian ospatu zen Trikigiro eguna. Aurtengoan, zortzigarren edizioa izan da. Bertan parte hartu dute Musika Eskolako Trikitilariak eta Panderojoleak.



URRIAK 20
AZPEITIA IIIII
2023



BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

❖ AZAROAK 26-SAN ANDRESETAN AZKOITIN MUSIKA ETA DANTZA KALEAN ZEHAR

San Andres eguna dela eta joan zen igande eguerdian, Txalkor Txistulari Taldeak eta Musika Eskolako dantzariak, txistulariak, panderojoleak eta trikitilariak, kalean zehar ibili ziren hainbat doinu eta dantza eskainiz. Dantzariak eta musikariak beraien dantzekin eta doinuekin festa giroan egun hau ospatu zuten.



❖ AZAROAK 22 – MUSIKALEAN – GAZTANENEA PARKEAN

Azaroaren 22an, asteazkena, musikarien zaindari den Santa Zeziliaren omenez, Bizkargi Musika eta Dantza eskolako ikasleak, GAZTANENEAKO PARKEAN, musika eta dantza emanaldi txiki bat eskaini zuten arratsaldeko 5:30ean. Bertan parte hartu zuten, Banda gaztea, Biolin Taldea, Trikitilariak eta Panderojoleak, Musika Hizkuntzako ikasleak, Dantzariak, eta instrumentu ezberdinetako ikasleak. Ekimen hau Musika Eskolen Elkartetik (EHME) sortu zen, Santa Zezilia musikarien zaindariari eskainitako eguna ikusarazteko asmoarekin.

❖ AZAROAK 17 – MUSIKA ESKOLAKO 40. URTEURRENAREN AMAIERAKO EKITALDIA

Azaroan zehar, Santa Zezilia musikarien zaindariaren omenezko hainbat kontzertu eta ekitaldi antolatzen dira. Gure Eskolak, 40. urteurrena ospatzen zuenez, ekitaldi berezi bat prestatu zuen herriko hainbat musika eta dantza taldeekin elkarlanean. Ekitaldi horrekin, urteurrenaren ospakizunei amaiera eman zitzaion. Eskolako ikasleek gain, hurrengo taldeek ere parte hartuko zuten urteurreneko ekitaldi berezi honetan.

IRAURGI ABESBATZA – SAHATSA DANTZA TALDEA – TXALKOR TXISTULARI TALDEA eta AZKOITIKO MUSIKA BANDA





BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

❖ ABENDUAK 12: URTEKO BATZAR NAGUSIA BIZKARGI MUSIKA ESKOLAN

Joan zen asteartean, arratsaldeko 7:30etan BIZKARGI Musika eta Dantza Eskolan urteko BATZAR NAGUSIA ospatu zen,

BIZKARGI Musika eta Dantza Eskolako Urteko BATZAR NAGUSIA



❖ ABENDUAK 15, PIANOKO IKASLEEN ENTZUNALDIA

Abenduaren 15ean (ostirala), arratsaldeko 6etan, Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako pianoko ikasleak lehenengo hiru hilabete amaiarako Entzunaldia eskaini zuten, Elkarguneko Oteiza aretoan.



❖ ABENDUAK 17, GABON KANTAK BAZTARTXO ANTZOKIAN

Floreaga ikastetxearen eta bertako guraso elkartearen eskutik, 32. **Gabon Kantak jaialdia** antolatu zuten. Ekitaldia, eguerdiko 12etan izan zen, Baztartxo Antzokian. Urtez urte, gabon giroan sartzen laguntzeko gabon kantak entzuteko aukera izan dugu. Aurtengoan ere, Bizkargi Musika Eskolako Abesbatzak parte hartu zuen beste hainbat abesbatzen artean: Floreagako ikasleen taldea, AB Korua, Bergarako musika eskolako abesbatza, Mutrikuko korala eta Madalen Txiki abesbatza.





BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

❖ ABENDUAK 18, PIANO ENTZUNALDIA “OTEIZA” ARETOAN, ARRATSALDEKO 7ETAN

Abenduaren 18an (astelehena), arratsaldeko 7etan, Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako instrumentu ezberdinetako ikasleak **lehenengo hiruhileko amaierako Entzunaldia** eskainiko digute. Hitzordua, arratsaldeko 7:00etan izango da Elkarguneko Oteiza aretoan.



❖ ABENDUAK 20, ARRATSALDEKO 5:15etan GABONETAKO BARNE-ENTZUNALDIA MUSIKA ESKOLAN

Abenduaren 20an (asteazkena), arratsaldeko 5:15etan, Bizkargi Musika Eskolako Entsegu gelan barne-Entzunaldi bat ospatu zen. Bertan parte hartu zuten Banda Gazteak, Biolin Taldeak eta Musika Tailerretako eta instrumentu ezberdinetako hainbat ikasleek. Entzunaldi honekin amaiera eman zitzaion lehenengo hiruhileko Entzunaldiei.



❖ URTARRILA-OTSAILA: PERKUSIOZKO MUSIKA-TRESNEN ERAKUSTALDI SAIOAK.

Musika Eskolako ikasle eta irakasleen artean 6-7 urte bitarteko haurrei aurkeztu zizkieten familia ezberdinetako musika tresnak. Umeak ongi etorriak izan ziren instrumentu ezberdinak ezagutu eta probatzeko, ume hauentzat aurrera begira instrumentu bat jotzen ikasteko lehenengo pauso bat izan daitezkeelarik.





BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

❖ TXISTUREN ERAKUSTALDI SAIOAK.



❖ SAXOFOIA ETA GITARRA ERAKUSTALDI SAIOAK



❖ OTSAILAK 5-6: PANDEROA ERAKUSTALDI SAIOAK



❖ OTSAILAK 7-8: METALEZKO HAIZE-MUSIKA TRESNAK





BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

❖ OTSAILAK 9-10: INAUTERIAK

Inauteriak gerturaten ari dira eta Udaleko kultur sailetik antolatu diren ekintzen artean, larunbatean eta eguerdiko 12:30ean, **Herriko Musika Bandako eta Bizkargi Musika Eskolako Gazteen Bandako kideek elkaturik**, kalejira egingo dute Carlos Muñoz zuzendariaren gidaritzapean.



❖ OTSAILAK 25: PIANO TOPAKETA – “PIANOAZ GOZATZEN”

Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak (EHME) eta bere baitan dauden Musika Eskolek eta piano irakasleek antolatu zen Jaialdi hau eta helburu honekin: ikasleek pianoaz gozatzea eta partekatzea.

Lurraldeka/bailaraka antolatu ziren jaialdi hauek eta otsailaren azkeneko asteburuan ospatu ziren guztiak.

Zortzi egoitza ezberdinetan antolatu ziren: ASTIGARRAGA – BERGARA – DURANGO – LEGAZPI – LEZO – GASTEIZ – ZARAUZ eta AZKOITIA “Azkoitia 700” egitasmoaren barne antolatu da Azkoitiko udalaren babesarekin. Guztira 470 ikasleek parte hartu zuten.

Azkoitiko emanaldia Elkarguneko “Herriko Plaza” aretoan izan zen, otsailaren 25ean, igandea, eguerdiko 12etan.



❖ MARTXOAK 3, XXIII. TALDEZ TALDE Kontzejupean: EUSKAL MUSIKA TRESNAK eta DANTZA

martxoaren 3an, eguerdiko 12:30etan, Taldez-taldeko **XXIII. edizioaren lehenengo emanaldia** ospatu zen Kontzejupean. Bertan, Musika Eskolako ikasleak aritu ziren hainbat Euskal doinuak eta Dantzak eskainiz.





BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

❖ MARTXOAK 10, XXIII. TALDEZ TALDE Kontzejupean: MUSIKA BANDAK

Igandean, martxoaren 10ean, Taldez Taldeko XXIII. edizioko bigarren emanaldia ospatu zen Kontzejupean. Bertan, Musika Eskolako Banda Gaztea aritu zen Azkoitiko Musika Bandarekin elkarlanean Carlos Muñozen gidaritzapean.



❖ MARTXOAK 17, XXIII. TALDEZ TALDE: IRAURGI eta BIZKARGI ABESBATZAK

Joan zen igandean, martxoaren 17an, Taldez Talde XXIII.edizioko hirugarren emanaldia ospatu zen. Bertan, **IRAURGI eta BIZKARGI** aritu ziren elkarlanean Iñaki Maidagan eta Maje Larrañagaren gidaritzapean. Emanaldi honekin amaiera eman zitzaion aurtengo Taldez Talde ekimenari.



❖ MARTXOAK 22: MUSIKA ETA DANTZA SAIOA SAN JOSE EGOITZAN

San Jose Egoitzan, aste horretan, Adinduen astea ospatu zuten. Hainbat ekintza antolatu zituzten egun horietarako, errutina hautsi eta entretenimenduari bide emateko. Besteak beste, gaztetxoek bisitak izan zituzten bertan, Ostiralean, **Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako** ikasleen txanda izan zen.





BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

❖ APIRILAK 22: ENTZUNALDIA ELKARGUNEKO “OTEIZA” ARETOAN

Astelehenean, arratsaldeko 7etan, Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako instrumentu ezberdinetako ikasleek Entzunaldi bat eskaini zuten. Emanaldia Elkarguneko Oteiza aretoan izan zen eta bertan entzundako musika tresnak izan ziren: pianoa, klarinetea, biolina eta flauta.



❖ MAIATZAK 12: DANTZARIEN II. UDABERRI KALEJIRA

Maiatzaren 12an, igandean, urtero bezalaxe, “Bizkargi” Musika eta Dantza eskolako ikasleek parte hartu zuten, herriko “Txalkor” Txistulari Taldeak antolatzen duen ekimenean. Ekimen honek joan zen urtean beste izen bat hartu zuen “Dantzarien Udaberriko Kalejira”, beraz, aurtengoan II edizioa ospatu da. Protagonistak, herriko dantzariak eta musikariak izan ziren.



❖ MAIATZAK 24: PIANOKO IKASLEEN ENTZUNALDIA

Maiatzaren 24an, arratsaldeko 6:00etan, Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako Pianoko ikasleen eskutik musika saio bat entzuteko aukera izan genuen. Entzunaldi hau, hirugarren hiruileko ekintzen artean antolatu zen. Elkarguneko Oteiza aretoan ospatu zen.





BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

❖ MAIATZAK 25: MUSIKALDIA TOLOSAN ETA IBARRAN

Musikaldia, Euskal Herriko Musika Eskolen jaia da eta 2 urtetik behin antolatzen da herri ezberdinean. Azkena Pasaian ospatu zen 2022an eta oraingoan, maiatzaren 25ean **Tolosan eta Ibarrran** ospatu da. Beste hainbat Eskolekin batera aritu ziren Musika Eskolako “Bizkargi” abesbatza, Dantza Taldea eta Txistulariak. Aukera paregabea beste musika-eskoletako ikasleek ezagutzeko eta elkarrekin musika egiteko.



❖ MAIATZAK 24-25-26, TRIKITILARIEN ASTEBURUA AZKOITIN

Joan zen astebururan, Triki Giro elkarteak antolatutako hainbat ekimen ezberdin antolatu ziren Azkoitin, udalaren babesarekin. Bertan aritu ziren, beste hainbat trikitilari eta panderojoleen artean, Musika Eskolako ikasleek. Zalantzarik gabe, gure kaleek animazio musikal handia izan zuten.



❖ EKAINAK 7, IKASTURTE AMAIERAKO JAIALDIA BAZTARTXO ANTZOKIAN

Ekainaren 7an, Bizkargi Musika eta Dantza eskolako ikasleen eskutik, ikasturte amaierako Jaialdia ospatu zen Baztartxo Antzokian. Aurten, Hiri Gutunaren 700. urteurrenaren ospakizuna dela eta herriko hainbat doinu ezagunak entzun genituen.

Doinu hauen izenburua: “DENON AZKOITIA”, Jose Luis Andreu da sortzailea. Partehartzaile ugari izan ziren, adin guztietako ikasleak: Musika eta Dantza Tailerrak Txikiak eta Helduak, San Joseko Egoiliarak, Banda Gaztea, Soka Taldea, Abesbatza, Euskal Musika tresnak, Rock taldea, Dantzariak e.a.





BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

❖ EKAINAK 11 – PERKUSIO ENTZUNALDIA, OTEIZA ARETOAN:

Ekainaren 11n, Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako **Perkusio gelako ikasleek Musika-entzunaldia** eskaini zuten Elkarguneko “Oteiza” aretoan. Musika-entzunaldi hau ikasturteko hirugarren hiruhilekoan egiten diren jardueren artean dago.



❖ EKAINAK 12 – BANDA GAZTEA ETA BESTE HAINBAT BAKARLARI ETA TALDEAK “HERRIKO PLAZA” ARETOAN ESKAINI ZUTEN KONTZERTUA

Ekainaren 12an, Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako **Banda Gazteak eta beste musika tresnetako hainbat ikasleek** eskaini zuten Elkarguneko “Herriko Plaza” aretoan Entzunaldi bat, ikasturteko hirugarren hiruhilekoan egiten diren jardueren artean, Carlos Muñozen gidaritzapean.



❖ EKAINAK 16 - LAURA BASTIDA ETA EKAIN UZKUNDUN, 3. SARIA LEIOAKO XXII. DANTZA SUELTO TXAPELKETAN

Ekainaren 16an ospatu zen **Leioan XXII. DANTZA SUELTO TXAPELKETA**. Leioako Udalak, Txikiak Txiki eta Gure Ohiturak dantza taldeek antolatuta. Bertan, zazpi bikote izan genituen lehian eta lehen hiru sailkatuak honela gelditu ziren: lehenengo postuan, Maren Galvez eta Gorka Granado (Lezo-Sopela), bigarrenen Katerin Artola eta Iker Belinchon (Oiartzun-Lezo) eta hirugarren **Laura Bastida eta Ekain Uzkundun**, Azpeitiarrak eta Bizkargiko ikasleak.





BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

❖ EKAINAK 17 – TRIKITIXA ETA PANDEROKO IKASLEEN ENTZUNALDIA

Ekainaren 17an, arratsaldeko 6:30etan, hirugarren hiruhileko Entzunaldien artean, **trikitixa eta panderoko ikasleen saioa** entzuteko aukera izan genuen Elkarguneko “HERRIKO PLAZA” aretoan.



❖ EKAINAK 18 - MUSIKA FAMILIAN: HAURTZOENTZAKO ETA BERAIEEN FAMILIENTZAKO MUSIKA SAIOA

Ikasturte honetan Musika Hezkuntza Goiztiarreko saioetara etorri diren **1 eta 2 urteko haurrentzat eta beraien familientzat** antolatu zen kontzertua hau. Musika saioa **Itxasne Fernandezek eta Edurne Garciak** gidatu zuten, eta ahotsarekin, akordeoiarekin eta klarinetearekin melodiak interpretatu zituzten. Helburuetako bat haurrak musikara hurbiltzen laguntzea izan da, proposamen ludikoen bidez, esperientzia musikal irisgarri, dibertigarri eta hezigarriaz gozatzeko aukera emanez. Guztira, 45 minutuko iraupena izan zuen. Elkarguneko “Herriko Plaza” aretoan ospatu zen arratsaldeko 6:15etan.



❖ EKAINAK 19: FLAUTAKO ETA BIOLINEKO IKASLEEN ENTZUNALDIA

Ekainaren 19an, arratsaldeko 6:30etan, hirugarren hiruhileko Entzunaldien artean, **Flautako eta Biolineko ikasleen saioa** entzuteko aukera izan genuen Elkarguneko “OTEIZA” aretoan.





BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ierketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

❖ SAN JUAN GAUA: XV. ZATOZ DANTZARA BALDA PLAZARA

Ekainaren 23an, igandean, Azkoitian, musika eta dantza elkarlanean protagonistak izan ziren San Juan gau berezi horretan. Eguraldiak ez zuen lagundu eta dantzari txikien DONIENE SAIOA bertan behera utzi behar izan zen, nahiz eta gainontzeko programazioa osatu zen. Bestalde, aurten Azkoitia 700. urteurrena ospatzen denez herrian, ekitaldi berezia prestatu zuten Sahatsa Dantza Taldeak, Txalkor Txistulari Taldeak, Herriko Musika Bandak, Iraurgi Abesbatzak eta Musika Eskolako musikariak eta dantzariak.

Sua jaitsi ondoren, “XV. Zatoz dantzara Balda plazara” herritar guztiei irekitako saioa ospatu zen Aitor Sorazuren gidaritzapean, aukera polita hainbat dantza pausoak ikasteko.



❖ UZTAILAK 1: LAURA BASTIDA ETA EKAIN UZKUDUN 3. SARIA LORTU DUTE IRUNGO TXAPELKETAN

Uztailaren 1ean ospatu zen Irunen XXXII. Bidasoaldeko Fandango eta Arin Arin txapelketa. Bi kategoriatan banatuta, A kategorian 15 urte artekoak eta B kategorian 16 urtetik gorakoak. Bi kategorietan zortzina bikote izan ziren lehian. B kategoriako lehen hiru postuak honela gelditu ziren.

- 1.- Maren Galvez- Gorka Granado
- 2.- Katerin Artola- Iker Belintxon
- 3.- Laura Bastida – Ekain Uzkudun





BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

11. 2024-25 IKASTURTERAKO AURREIKUSPENAK

11.1. 2024-25 IKASTURTEKO EGUTEGIA



BIZKARGI Musika eta Dantza Eskola

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

2024-25 IKASTURTEKO EGUTEGIA

IRAILA							URRIA							AZAROA						
AL	AS	AZ	OS	OR	LR	IG	AL	AS	AZ	OS	OR	LR	IG	AL	AS	AZ	OS	OR	LR	IG
						1												1	2	3
2	3	4	5	6	7	8		1	2	3	4	5	6	4	5	6	7	8	9	10
9	10	11	12	13	14	15		7	8	9	10	11	12	13	11	12	13	14	15	16
16	17	18	19	20	21	22		14	15	16	17	18	19	20	18	19	20	21	22	23
23	24	25	26	27	28	29		21	22	23	24	25	26	27	25	26	27	28	29	30
30								28	29	30	31									
ABENDUA							URTARRILA							OTSAILA						
AL	AS	AZ	OS	OR	LR	IG	AL	AS	AZ	OS	OR	LR	IG	AL	AS	AZ	OS	OR	LR	IG
						1				1	2	3	4	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8		6	7	8	9	10	11	10	11	12	13	14	15	16
9	10	11	12	13	14	15		13	14	15	16	17	18	17	18	19	20	21	22	23
16	17	18	19	20	21	22		20	21	22	23	24	25	26	24	25	26	27	28	
23	24	25	26	27	28	29		27	28	29	30	31								
30	31																			
MARTXOA							APIRILA							MAIATZA						
AL	AS	AZ	OS	OR	LR	IG	AL	AS	AZ	OS	OR	LR	IG	AL	AS	AZ	OS	OR	LR	IG
						1			1	2	3	4	5				1	2	3	4
3	4	5	6	7	8	9		7	8	9	10	11	12	5	6	7	8	9	10	11
10	11	12	13	14	15	16		14	15	16	17	18	19	12	13	14	15	16	17	18
17	18	19	20	21	22	23		21	22	23	24	25	26	19	20	21	22	23	24	25
24	25	26	27	28	29	30		28	29	30				26	27	28	29	30	31	
31																				
EKAINA																				
AL	AS	AZ	OS	OR	LR	IG														
						1														
2	3	4	5	6	7	8														
9	10	11	12	13	14	15														
16	17	18	19	20	21	22														
23	24	25	26	27	28	29														

- Jai egunak eta Oporrak: Gabonak, Aste Santua
- IKASTURTE HASIERA eguna eta AMAIERA eguna
- Sta. Zezilia / Amaierako JAIALDIA: (Ez dago klaserik)
- Zubia



BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

2023-24 Ikasturteko Memoria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

11.2. 2024-25 IKASTURTEKO EKINTZEN EGUTEGIA

Ondorengo ekintzak 2024-25 Ikasturteko Planean jasoko dira.

HILABETEA	EGUNA	EKINTZA
URRIA	urriak 18	• Azpeitiko Trikigiro Topaketan trikitilari eta pandero-joleak parte hartuko dute.
AZAROA	urriak 19	• Segurako Dantza Txapelketan Dantzari bikoteak parte hartuko dute.
	azaroak 22	• “Musikalean” Kalejira
	azaroak 22	• Sta. Zezilia Jaialdia Elkarguneko “Herriko Plaza” aretoan
	azaroak 24	• San Andres-Dantza/Txistu, Triki, Panderoa Kalean zehar.
ABENDUA	abenduak 16	• Biolina, klarineta, saxofoia Entzunaldia Oteiza aretoan
	abenduak 19	• Piano Entzunaldia Oteiza aretoan
	abenduak 22	• Gabonetako Kontzertua, Kontzejupean
URTARRILA	urtarrilak 5	• Erregetako kalejira (Banda Gaztea)
	urtarrilak 25	• Musika eta Dantza Hezkuntza Palestinarekin Donostian (Dantzariak)
OTSAILA	otsailak 14	• Ahots eta Instrumentuak Entzunaldia Oteiza aretoan
	otsailak 21	• Inauterietako kalejira (Banda Gaztea)
	otsaila-martxoa	• Musika Tresna ezberdinen aurkezpenak
	otsailak 22	• Piano Jaialdia Ermuan
MARTXOA	martxoak 16	• XXIV. Talde Talde FOLK Musika eta Dantza
	martxoak 23	• XXIV. Talde Talde MUSIKA BANDAK
	martxoak 30	• XXIV. Talde Talde ABESBATZAK
	martxoak 18	• Gitarra, Saxofoia eta Konboak –Herriko Plazan (Elkargune)
	martxoak 20	• Piano Entzunaldia Oteiza aretoan
	martxoak 21	• Adinduen asteko Ekitaldia San Jose Egoitzan
APIRILA	apirilak 6	• III. Flauta Topaketa Baztartxo antzokian
	apirilak 7	• Biolina-Klarineta Entzunaldia Oteiza aretoan
	apirilak 8	• Entzunaldi ezberdinak: Konboak, Metala/Perku e.a.
	(zehaztu gabe)	• Dantzarien Udaberri Kalejira
EKAINA	ekainak 6	• Ikasturte amaierako Jaialdia
	(zehaztu gabe)	• Perkusio Entzunaldia Oteiza aretoan
	ekainak 12	• Piano Entzunaldia Oteiza aretoan
	(zehaztu gabe)	• Banda Gaztea eta beste
	(zehaztu gabe)	• Trikitixa-Panderoa Entzunaldia
	(zehaztu gabe)	• Musika Familian
	(zehaztu gabe)	• Flauta eta Biolina entzunaldia
	ekainak 23	• San Juan sua - XV. Zatoz dantzara Balda plazara